

LIBURU-ERRESEINA

IRUJO, Xabier; URRUTIA, Iñigo (2013):  
*Historia jurídica de la lengua vasca. 1789-2013.*  
Instituto Vasco de Administración  
Pública, Oñati.

**Asier Barandiaran**

*EHU/UPV – Euskal Herriko Unibertsitatea*  
asier.barandiaran@ehu.eus

Oso gutxi izan dira euskararen historia juridikoa aztertzen duten lanak eta orain arte egin diren mota horretako lanak gutxi batzuek egin dituzte. Gutxi horien artean Xabier Irujo Nevadako Unibertsitateko irakaslea eta Iñigo Urrutia Libarona, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea ditugu. Dagoeneko ibilbide bat egina daukate euskararen historia juridikoa lantzen bi ikerlari hauek; izan ere, eta haien bibliografia hemen agortu nahi izan gabe, aipatzen ahal dira 2009an *A Legal History of the Basque Language (1789-2009)* izeneko lana, Eusko Ikaskuntza eta Idahoko Cenarrusa Fundazioaren laguntzaz, eta *The Legal Status of the Basque Language Today* (2008an Eusko Ikaskuntzak argitaratua) non Iñigo Urrutiak parte hartzen zuen, Gloria Totoricagüenarekin batera. Lan hau aurreko bi horien eta beste batzuen ondorengoa bezala ikus dezakegu, jakinik, Viola Miglio-ren hitzaurrean adierazten denez, ale hau kaleratu orduko eguneratze-, edizio- eta garapen-lan zabala egin dutela egileek. Esan gabe doa, liburu honetan Xabier Irujok eta Iñigo Urrutiak egin dutela lanik handiena, nahiz eta zenbait kapitulutan (aurkibidean ikusgai) beste egile batzuek ere lana egin duten: Juan Madariaga, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta Asier Barandiaran, erreseina honen egilea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

Nahiz eta izenburuan 1789-2013 tartea kontuan hartuko dela esaten den, aurreneko bi kapitulu luze eta mamitsueta egileek beste aldi-tarte luzeagoa kontuan hartzen dute. Lehenengo kapituluan, esate baterako, *Lingua Navarrorum* delakoaren aurkezpen historiko bat egiten dute testuinguru soziolinguistikoan girotua eta, hori dela-eta, IX. mendetik (Iruñeko erresumaren sorrera) gaur arteko ibilbide bati ekin diote egileek. Bigarren kapituluan, berriz, estatu foraletan euskara eta bestelako hizkuntzen egoera deskribatu eta kontatzeari ekin diote egileek, XI. mendea abiapuntua izanik. Hori guztia, jakina, Frantziako Iraultzatik sortu ziren estatuak eta hizkuntza gutxituekiko jarrera berriak testuinguruan jarri nahian. Hainbat datu esanguratsu ekartzen dituzte egileek argitara; hala nola, euskararen berri ematen duten aurreneko testigantzak testu legalak izan direla, euskararen erabilera bermatzeko (Errioxako Ojastro herriko forua, XIV. mendea), zein debekatzeko (Huescako udal ordenantza batzuetan, non salerosketen tratu legalak euskaraz egitea galarazita omen zegoen).

Ibilbide historiko honen azterketan, jakina, hizkuntza gutxituekiko eta, bereziki, euskararekiko jarrera murriztaile, baztertzaile eta arbuizatzaile ugari erakusten dira, historian zehar hartu diren erabaki juridiko-politikoak zuri nahian. Horren barruan sartzen ahal ditugu Frantzia eta Gaztelako erresumetan izandako bazterreko hizkuntzekiko aurreiritzi linguistikoak eta norberarekiko txobinismoa edo abertzalekeria, liburu honetan hainbat erreferentzietan erakutsia.

1789 urtea estudio honen abiapuntutzat hartzeak Frantziako Iraultzarekin du zerikusia. Izan ere, batez ere gertaera hartatik sortutako mentalitate estatualistak hainbat ondorio juridiko ekarri zituen hizkuntzen inguruan: estatuak hizkuntza hegemoniko bat izan behar zuen, hizkuntza “nazionala” deiturikoa batzuetan (ustez kultura eta zientzia garatzeko gaituagoa), eta gainontzeko hizkuntzak (“patois”, “vulgares”, “feudales”, “serviles”, “locales”, “dialectos”, “bárbaros”...) desagertarazi beharra zegoen, aurrerapenaren aurkakoak zirelakoan. Jarrera horrek euskararen kontrako hainbat neurri eta erabaki ekarri zituen administrazioaren arloan, arlo judidikoan eta hezkuntza sistemaren arloan. Hasierako kapituluetan erakusten zaigu, beraz, nola estatuetan izandako jarrera zentralizatzaile baten ondorioz, hezkuntza sistemari eragiteko tresnak eta prozedurak areagotu egin zirela eta zentralizazioaren gorengo maila XIX. menderako lortua zegoela bai Espainia aldean bai Frantzia aldean. Horrek ahalbidetu egin zien erresumei (Borboien leinua jartzen da anitzetan horren adibidetzat) eta estatuei hizkuntza elebakarraren inposaketa modu zehatz eta eraginkor batean. Hego Euskal Herrian

---

***Estatu foraletan euskara eta bestelako hizkuntzen egoera deskribatu eta kontatzeari ekin diote egileek, XI. mendea abiapuntua izanik. Hori guztia, jakina, Frantziako Iraultzatik sortu ziren estatuak eta hizkuntza gutxituekiko jarrera berriak testuinguruan jarri nahian.***

**Frantziako  
iraultzatik  
zentralizazio eta  
estatuekiko  
menpekotasuna  
areagotu egin  
ziren eta botere-  
guneetatik  
hizkuntza  
bakarraren  
aldeko aldarriak  
egiten aritu dira  
ordutik ia-ia  
gaur arte.**

gaztelania izanen zen nagusi bestelako erromatze-hizkuntzen alboan eta euskararen alboan eta Frantziako estatuan frantsesera euskararen ordeztze eta bestelako erromantze-hizkuntzen ordeztze.

Juan Madariaga Orbea Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak arreta oinarri ideologikoetan jarri du euskararekiko hizkuntza politiko baztertzaila eragiten dutenak (“Un mar de prejuicios: fundamentos ideológicos de la política lingüística represiva y desdeñosa relativa a la lengua vasca” da izenburua). Izan dira horrelako bestelako zenbait lan (Juan Mari Torrealdaireren *El libro negro del euskera* datorkigu oroimenera) eta konparazioa egiterakoan ondorioztatzen dugu kapitulu honetan ondo kokatzen dituela oinarri ideologiko horiek (eta beraien ondorio juridiko-administratibo-politikoak) testuinguru sozialean. Frantziako iraultzatik zentralizazio eta estatuekiko menpekotasuna areagotu egin ziren eta botere-guneetatik hizkuntza bakarraren aldeko aldarriak egiten aritu dira ordutik ia-ia gaur arte. Hizkuntza bakarraren aldeko propagandetan saiatu izan dira askotan euskara bezalako hizkuntza gutxituen balio kulturala, gaitasun komunikatiboa eta potentzial adierazlea gutxien. Jaso diren zenbait testigantzetan agintari batzuen pertsekuzio-mania eta obsesio gaixotia erakusten da: erreakzioak izanen lirarteke benetakoa arrisku eta mehatxu izan direla jakin izan ez bagenu.

“La formación de los estados (1789-1876)” izeneko kapitulu luzeak jadanik egile nagusien lana izaki liburu baterako gaia eman zezakeen, hainbeste mami eta aztergai ekartzen baitu argitara, betiere euskararen inguruan izandako ondorioei begira ondua. Kapituluak Frantziako Iraultza du abiapuntutzat, berriz ere, eta bigarren karlistadaren amaiera du helmuga, eta tartean euskararen inguruan gertatutako guztia aztergai dugu hemen. Behin-behinean, egia da, Frantzian zenbait lege eta arautegi beste hizkuntzetan ere ateratzeko erabakia hartu zuten hasieran, baina joera jori hainbat eta azkarren desagertarazteko asmo garbi eta gordina zuten eta ahal izan zutenean frantsesera inposatu zen estatu-hizkuntza bezala, kapituluak erakusten denez.

Ondorenean “Eusko Pizkundea (1876-1936)” izeneko kapitulu mardula dugu. Bigarren karlistada bukatu ostean zenbait eragile bildu ziren Euskal Herrian eta euskal diasporan mugimendu politiko berriak sorzitez eta euskal identitateari eta euskal hizkuntzari eusteko. Gerora horrek guztiak “Eusko Pizkundea” izena berenganatuko zuen, eta proiektu zehatz eta eraginkorra bilakatuko zen, kapitulu honetan azaltzen denez. Baina, era berean, tarte horretan bai Espainian, bai Frantzian zenbait erabaki, arau eta lege murriztaile ezarri ziren euskarak

presentzia izan ez zezan ez eskoletan, ez erlijioaren irakaskuntzan, ez bizitza publikoan. Murrizketaren arloan, 1876ra arte lortu ez zena lortu nahi izan zuten hizkuntza gutxituen politika baztertzailerik, liburu honen egileek ondo baino hobeto dokumentatzen dutenez. Horren aurrean zenbait saiakera izan ziren euskal diputazioek bultzatuta murrizketak hain bortitzak izan ez zitezen edota, esate baterako, mai-su-maistren artean euskararen ezagutza baloratua edo eskatua izan zedin. Erantzunak, ordea, beti izan ziren ezezkoak, ideologia nazionalista espainiar batek eraginganda. XX. mendearen bigarren hamarkadan eta hirugarrenaren zati batean (36ko gerra piztu arte) Euskal Pizkundea deiturikoak indar berezia hartu zuen (debekuak gora-behera) eta Autonomia Estatutuarekin (1936-1937) bere erpina lortu zuen, bereziki euskararen onarpen juridikoari dagokionez, lehendabizi koofizialtasuna lortu zuelarik.

Hurrengo kapitulua, “Posguerra y dictadura (1937-1975)”, ez da aurrekoa bezain mardula, besteak beste, egileek erakusten dutenez, aldi hura desertu moduko zerbait izan zelako euskararen aitortza juridikoren arloan. Euskara eta bestelako hizkuntza gutxituen kontrako erasoak, berriz, basatia izan zen, debeku, mespretxu eta zigorraren bidetik beti ere. Egileek bildu dituzten “frogak” eta testigantzak are eta ikaragarri eta eskandalagarriagoak dira, aurreko aldiekin alderatzen baditugu, beraien justifikazioa ere are eta doilorragoa izanik, nazionalismo eta jakobinismo eldarniozko baten bidetik. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, berriz, beste joera bat abiatuko da: irekitasun itxura bat eman nahi izan zuen erregimenak, bereziki garai hartako gero eta erreibindikazio handiagoen aurrean. Hizkuntza “natiboen” agerpena toleratzen hasi ziren hezkuntza arloan eta horrek (gerra zibilaren osteko) aurreneko ikastolen sorrera ekarri zuen, hainbat oztopo legal gainditu behar izan zuten arren. Frantziako estatuari erreparatuz gero, aldi honen barruan Frantziako 4. errepublika kokatzen da (1946-1958). Zentralismoak jarraituko du bertan, baina zenbaitzuek egindako lana Alemaniaren okupazioaren aurkakoa saritzeko edo, nolabaiteko esparrua ematen hasi zitzaizen gutxitutako zenbait hizkuntzari: bretoiara, katalanera, okzitaniera eta euskarari, batez ere 1951eko “loi Deixonne” delakoari esker.

XX. mendearen azkeneko txanpan kokatuta “El último cuarto de siglo XX (1975-2000)” kapitulua dugu. Zenbait aldaketa tarteko zirela, euskarak ofizialtasuna berreskuratu edo lortu zuen Hego Euskal Herrian azken laurden hartan eta hori berebiziko nobedadea izan zen. Baina euskara edo euskaldunen eskubide linguistikoak trataera desberdina

---

**Frantziaren zenbait lege eta arautegi beste hizkuntzetan ere ateratzeko erabakia hartu zuten hasieran, baina joera jori hainbat eta azkarren desagertarazteko asmo garbi eta gordina zuten eta ahal izan zutenean frantsesera inposatu zen estatu-hizkuntza bezala.**

---

***Euskarak  
ofizialtasuna  
berreskuratu edo  
lortu zuen Hego  
Euskal Herrian.  
Baina euskara  
edo euskaldunen  
eskubide  
linguistikoak  
trataera  
desberdina hasi  
ziren jasotzen  
Euskal  
Autonomia  
Erkidegoan eta  
Nafarroako Foru  
Erkidegoan,  
Espainiako  
Konstituzioa  
ezarri eta gero.***

hasi ziren jasotzen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, Espainiako Konstituzioa ezarri eta gero. Euskararen lege bana atera zuten aipatutako erkidegoetan eta lege horiek zein orduko hizkuntza politikek izan zuten bilakaera eta izan zituzten ondorioak (hezkuntza sisteman, administrazioan, komunikabideetan eta euskararen hedapenean) modu argian eta esanguratsuan aztertzen dira kapitulu honetan. Frantziako estatuan zer nolako mugimenduak suertatu ziren hizkuntzen politiken gainean ere aztergai du kapituluak; izan ere, *Francophonie* delako kontzeptua nabarmendu egin zen azkeneko mende-laurdenean eta berorri eusteko zenbait lege eta dekretu argitaratu ziren, betiere frantsesak bere nagusitasuna gal ez zezan ez atzerrian ez estatu barruan.

Ia hondarrean, “Retos de la política lingüística de los estados español y frances” kapitulu esanguratsua dugu, non, batez ere 2000 urtetik aurrera euskararen aurkako erabaki kaltegarri, murriztaile eta bidegabeak deskribatzeaz gain, nazioarteko erakunde batzuek (adibidez, *European Bureau of Lesser Used Languages* delakoa) egindako zenbait gomendio eta jarduera-ildo proposatzen diren, aurrerantzean euskara bezalako hizkuntza gutxituen aurkako erasoei modu eraginkorragoan eusteko eta zabalkuntza zein aberaste bidean jarraitzeko.

Eta bukatzeko, “Epílogo: valoración tras 225 años de política lingüística” kapitulua dugu non egileek lanean zehar aztertutakotik zenbait ondorio eta ikuspegi orokor eskaintzen duten. Horretarako aldi eta zonalde desberdinetan euskararekiko jarrera juridikoak kontuan hartzen dituzte egileek, lan osoaren ikuspegi laburbildua agertuz.

Euskararen historia juridikoaren berri emateko saihestu ezineko erreferentzia da eta izanen da, zalantzarik gabe, askoren ezjakintasuna gainditzeko eta euskal hizkuntzaren bilakaeraren berri izateko, alderdi juridikoa askotan uste den baino garrantzitsuagoa eta eraginkorragoa baita hizkuntza gutxituekin ari garelarik. ●